



## Etxegarai eta Amilibia irabazle Loatzokoan

**AMASA** ▶ 67 parte-hartzaile izan zituen herenegun Loatzoko XV. Igoera-Jaitsierak; 7 emakumezkoak

**SAILKAPENA** ▶ Ait Chaou eta Izagirre gizonetan, eta Ezeiza eta Blanco emakumeetan 2. eta 3. ▶ 4



Probaren hasierako unea, herenegun. I. AZPILIKUETA



## 500 pertsona Natur Bideen Egunean

**LEITZA** ▶ Plazaola Partzuergoak antolaturiko jaietan txikiak izan ziren protagonista, eguraldiak gehiegi lagundu ez bazuen ere ▶ 7

**ALEGIA** ▶

## Eskolakoek II. Bertso Paper Lehiaketa ostiralean egingo dute

Aukeratzeko hiru gai izango dituzte gazteek, hiru mailatan banatuta; helduek hilaren 18ra arte epea zabalik dute ▶ 5

**BERROBI** ▶

## Ekitaldiz beterik ekin diote XVII. Kultur Asteari

Igandera arte luzatuko da; gaur ipuin kontalaria eta hitzaldia izango dira ▶ 6



Tango emanaldia. A. IMAZ

**LEITZA** ▶

## Eskuz Banakako finalerdirako sailkatu da Abel Barriola

Martinez Irujoren aurka irabazita, Eugiren aurka lehiatuko da ▶ 7

SANTAKRUZAK ▶

# Eskualdeko lehenak, amaituta

Herenegun bukatu ziren Santa Kruz jaiak Asteasuko Elizmendi eta Orexan; «gustura» azaldu dira bi herrietan

## ERREDAKZIOA

Elduainen jaiak zen maiatzaren 23an, 1842. urtean. Urte mordo-pasa ostean, apaiza honen izena hartu du Asteasuko Elizmendi auzoko eta Orexako jaiak. Bide batez, eskualdeko gainontzeko jaiak bidea irekitzen die santakruzak, gurean ospatzen diren lehenak izanik.

Lehenak izanagatik, euren herritarrek ederki gozaten dituzte egun hauek. Halaxe egin zuten, bederen, Elizmendi auzoan herenegun, jaien azken egunean. Elizkizunaren ostean, hamaiketakoarekin barneratu ziren hemen festa giroan; hamaiketakoarekin eta musikarekin, Laja eta bere taldea aritu baitziren giroa alaitzen. Eguerdi partean toka txapelke-

ta antolatu zuten «jendearen parte hartzearekin». Arratsaldean herri kirolen txanda iritsi zen eta gaztetxoek zuzen txiki-ekin jolasteko aukera ere izan zuten. Arratsaldean Elizmendi bildutako «jendetza» azpimarratu du antolatzaileek.

Orexan, berriz, arratsalde partean hasi ziren ekitaldiekin; Oiartzungo Girizia elkarteak kideen arteko lehia izan zen eta oinbiko 6 enbor ebaki behar izan zituen aizkolariak irabazi zien bi trontzalariei. Ondorenbeto saioa izan zen udaletxe-ko ganbaran.

Asteasun Ximonen igoerarekin eta Orexan oilarrarenarekin agur esan zieten aurtengo jaiak. Bietan ere, «oso gustura» geratu dira eman dutenarekin.



Herri kirolen txanda izan herenegun arratsaldean; plaza jendez lepo zegoen. I. AZPILIKUETA



Asteasun giro ederra izan zen goiz guztian zehar: hamaiketako egin ostean gaztetxoak tokan aritu ziren, eta dantza ere egin zuten. I. AZPILIKUETA


**hitza**
**Harpidedunen txokoa**
**Egin zaitetz harpidedun!**

HITZaren HARPIDEDUN TXARTELAREKIN  
%5\*-eko BEHERAPENA izango duzu zure EROSKETETAN

\*Promozio hau ez da beste beharpenei gehituko  
eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

Txartela HITZaren harpidedun ordaintzaileek bakarrik eskuratu  
dute; deitu 902 82 02 01 telefono zenbakira

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZaren harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

▶ DENDA HAU EK HITZA-REN LAGUNTZAILEAK DIRA

**NOBIAKIN**  
TOLOSA • Tel.: 943 67 22 44  
Santa Mari plaza, 1 behea

Gudari kalea, 5 • TOLOSA  
Tel.: 943 65 04 62

**kanikak**  
San Frantzisko, 21 • Tolosa  
Tel.: 943 65 27 46

**ILUMINAZIOA**

**SHANTI KIROLAK**

Rondilla, 11  
TOLOSA  
Tel.: 943 67 40 74

**Avalon**  
osagaiak  
korreo, II • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

**MUGAR**  
Nafarroa etorb, 16 • TOLOSA  
Tel.: 943 65 56 85

**LIZARRIBAR**  
OINETAKOAK  
Arostegieta kalean  
TOLOSA

FUTBOLA ▶

# Garrantzitsua Tolosak Alaves B-ren aurka lortutako garaipena

1-0 irabazi zuten Gorka Blancok sartutako gol bati esker; hurrengo partida Getxon izango dute Arenasen aurka

INIGO TERRADILLOS

Oso garaipen garrantzitsua lortu zuen herenegun Tolosa CFk Alaves B taldearen aurka Berazubiko zelaian. 1-0 izan zen partida amaierako markagailua, eta 3 puntu horiek beharrezkoak izan dituzte tolosarrak maila mantendu nahi badute.

Partidako gol bakarra sartu zuena Gorka Blanco izan zen, eta hau lehenengo zatiko 16. minutuan gertatu zen. Partida osoan zehar nabarmen nabari-tzen Tolosak 3 puntuak beharrezkoak zituela, izan ere, 3 jardunaldi baino ez dira geratzen liga amaitzeko, eta beheko postuetatik ateratzeko aukerak gero eta gutxiago izango diren partida ez balute irabaziko. Gainera, tolosarren garaipen-

SAILKAPENA ▶

HIRUGARREN MAILA

1. Zalla	71
2. Beasain	65
3. Portugalete	64
4. Amorebieta	63
5. Baskonia	61
6. Gernika	59
7. Santurtzi	51
8. Cultural	49
9. Alaves B	49
10. Elbar B	46
11. Elgoibar	46
12. Audio	46
13. Arenas	44
14. Lagun Onak	41
15. San Pedro	37
16. Real Union B	36
17. Tolosa	33
18. Santutxu	30
19. EHU	27
20. San Ignacio	27

nak garrantzi handiago hartu du, aurreko egunean, larunbatean, EHUK eta San Ignaciok irabazi baitzuten, tolosarren mesederako.

Apezetxea, Antxon, Urki, Iban, Ekhi, Romero, Rincon, Aritz, Blanco, Orue eta Regillaga izan zen hasierako hamakakoa osatu zuten jokalariek. Ekaitz Rinconengatik atera zen 64. minutuan; Uribe Blanco-rengatik irten zen zelaia 57. minutuan eta Urtzi, berriz, Oruerengatik 75. minutuan.

Tolosak hurrengo partida Getxon izango du Arenasen aurka; Hurrengoan etxean Real Union B taldea hartuko dute, eta azken partidaren Santurtzi-ren aurka jokatu beharko dute etxetik kanpo. Berebiziko garrantzia duten hiru partida geratzen zaizkie, beraz.

HEZKUNTZA ▶

## Bilera etzi Orixen, gurasoei zuzendua

Batxilergoko 2. mailako gurasoei zuzenduriko bilera egingo dute etzi Orixen institutuan. Hauek izango dira bertan jorratuko dituzten gaiak: Landutako gaiak eta egindako bisitei buruzko informazioa; ikasketak eta lan-irteerei buruzko informazioa; unibertsitate zein labide ikastegietan matrikulatzeko egin beharreko tramiteei buruzko informazioa. Bilera 19:00etan izango da.

GIZARTEA ▶

## Abiba diskojaia egingo dute larunbatean

Hilaren 12an Abiba diskojaia antolatuko dute Beotibar pilotalekuan. Bertara joateko sarrerak topagunean eta kultur etxean daude salgai, 09:30etik 13:30era eta 17:00etatik 19:00etara. 3 eurotan eros daitezke.

GIZARTEA ▶

## Laskoraingo urteurrenaren afaria

Hilaren 19an Laskorain Ikastolaren 40. urteurrena dela eta, ikasle ohien afaria antolatu dute. Tolosako ferialekuan izango da afaria eta ondorengo festa. Bertan parte hartzeko txartelak hilaren 15aren aurretik eskuratu beharko dira, 20 euroren truke. Txartelak Raku, Orbela, Ikatza eta Iruñea tabernetan eros daitezke. Urte hauetan gutzietan Ikastolako ikasle izan diren guztiak parte hartzera animatu nahi dituzte afariko antolatzaileek.

XAKEA ▶

## Emaizta onak Tolosa-Ibarrak Kutxa xake txapelketan

4-0 eta 3-1 irabazi zuten Beasainen; hurrengo igandean infantilak lehiatuko dira

ERREDAKZIOA

Aurreko asteburuan Kutxa xake txapelketa hasi zen Beasainen. Tolosa-Ibarrak bi talde alebin eraman zituen bertara eta biek ere hasiera «bikaina» izan zuten. 4-0 eta 3-1 irabazi zituzten lehen bi txandak eta bakoitza bere multzoko lehen postuan dago. Intxaurren, Muguruza, Mendizabal, Arechaga, Villena, Maiz, Mujika eta Salbarreditarrek lortu zituzten puntuak. Seiko multzotan banatuta, multzo bakoitzetik lehen bi taldeak bakarrik sailkatzen dira datorren ekainean Azkoitian izango den finalerako, beraz, garrantzitsua da ahalik eta puntu gehien lortzen joatea.

Bestalde, datorren igandean hasiko dira infantilak Kutxa txapelketan. Tolosa-Ibarrak beste talde bat izango du hor ere, hauek Donostian jokatuko dutelarik.



Tolosa-Ibarrak partida batean. HITZA

KULTURA ▶

## Albada Erdi Aroko musika eta dantza taldearen emanaldia, bihar udaletxean

20:00etan da saioa; ondoren hitzaldia izango da Bidearen inguruan

ERREDAKZIOA

Tolosako Done Jakue Bideko Lagunen elkarteak Done Jakue Bidearen 2. Astea antolatu du hainbat ekitaldirekin «Done Jakue bideak Tolosarentzat izan duen eta duen garrantzia erakutsi asmoz». Bihar hasiko dira ekitaldiok Albada Erdi Aroko dantza eta musika taldearen emanaldiarekin. 20:00etan izango da saioa Bideko Musikarekin lagundurik udaletxe batar aretoan. Ondoren, hitzaldia izango da historian zehar tolosarrek Bidearekin izan duten harremanaz, Pablo Garcia-ren eskutik. Bidearen ondare kulturala Euskadin gaia ere landuko dute hitzaldian Arantxa Arzamendirekin, Eusko Jaurilaritzako Ondarearen zuzendariarekin. Oscar Terol izango da moderatzailea.



Albada taldearen emanaldi bateko une bat. HITZA

Albada taldea 1985. urtean sortu zen Errenazimenduko musika profanoa zabaltzeko helburuarekin. Bederatzi ahots nahasiz osaturik dago taldea, eta garaiko instrumentuak era-

biltzen dituzte, vihuela, salterioa, citara edota cromornos-a esaterako. Emanaldi anitzak eskaintzen dituzte, polifoniak, eszenaratzak, errezitatzeak eta dantzak osatuta.


**TOLOSALDEA GORNABAKO L. R. INSTITUTUA**  
 INSTITUTO SUPERIOR DE FORMACIÓN PROFESIONAL TOLOSALDEA

**JARDUNALDI IREKIA**

Ikasle, guraso, langile, enpresa eta interesatutako guztiei zuzendua.  
 Ikastetxeko instalazioak ezagutzeko bisita gidatua eta bere eskaintza akademikoa.

**Eguna: Osteguna 10**  
**Ordua: 18:00etatik 21:00etara**  
**Informazioa: Mugikorren bidez:**  
**SMS: TOLOSALDEA - IDATZI 5533**

[www.tolosaldea.com](http://www.tolosaldea.com) • Tel.: 943 65 11 47

## AMASA ▶ KIROLAK



Korrikalariak prest probari hasiera ematear zenean, herenegun. IBON AZPILIKUETA

# Etxegarai eta Amilibia gailendu dira Loatzoko XV. Igoera-Jaitsieran

67 parte-hartzaileetatik, 2. eta 3. Ait Chaou eta Izagirre gizonetzkoetan eta Ezeiza eta Blanco emakumezkoetan

IMANOL GARCIA

Fernando Etxegarai beratarrak (Nafarroa) eta Nerea Amilibia zizurkildarrak irabazi zuten Loatzoko XV. Igoera-Jaitsiera. Gizonetzkoetan bigarrena Hassan Ait Chaou billabonatarra izan zen —eskualdeko lehenengoa, beraz— eta hirugarrena Pello Izagirre asteasuarra. Emakumezkoetan bigarrena

Idoia Ezeiza zubietarra (Gipuzkoa) eta hirugarrena Conchi Blanco anoetarra izan ziren.

Guztira 67 parte-hartzaile aritu ziren korrika, horietatik 7 emakumezkoak. Ateri egin bazuen ere, lokatz ugari zegoen eta horrek zaildu egin zuen korrikalarien martxa. Parte-hartzaile guztiek kamiseta jaso zuten eta produktu ugariaren zozketan parte hartu zuten.

## SAILKAPENA ▶

## GIZONEZKOAK

1. Fernando Etxegarai	43.58
2. Hassan Ait Chaou	44.53
3. Pello Izagirre	45.44

## GIZONEZKOAK

1. Nerea Amilibia	56.56
2. Idoia Ezeiza	1.02.36
3. Conchi Blanco	1.03.41



Fernando Etxegarai. IBON AZPILIKUETA



Nerea Amilibia. IBON AZPILIKUETA



Hassan Ait Chaou. IBON AZPILIKUETA

## POLITIKA ▶

## Inpugnatutako zerrenda ia guztiak baliogabetuta

Amezketako Kimu Berriak ez beste guztiak baliogabetu dituzte epaileek eskualdean

## ERREDAKZIOA

Espainiako Auzitegi Gorenak eskualdeetako Abertzale Sozialistako hautesle zerrenda guztiak, EAeko bederatzizko zerrenda eta Altzoko Altzolanean plataforma baliogabetu ditu. Ondorengo herrietako EAeko zerrendak baliogabetu ditu: Areso, Asteasu, Elduain, Ibarra, Irura, Lizartza, Leaburu, Tolosa eta Zizurkil. Espainiako Estatuaren abokatua eta Fiskaltzak Amezketako Kimu Berriak plataforma inpugnatu bazuten ere, Espainiako Auzitegi Gorenak ez du zerrenda hori baliogabetu.

Auzia ez dago oraindik guztiz erabakita: Espainiako Auzitegi Konstituzionalaren babesa eskatzeko aukera dute baliogabetutako zerrendek eta epaitegi horrek du azken hitza. AS hautesle elkarteek eta Altzolanean plataformak atzo gauerdia baino lehen aurkeztu behar zituzten helegiteak. EAek, berriz, gaur aurkeztuko ditu. Ondoren, Auzitegi Konstituzionaleko 1. salak hartuko du auzia. Maria Emilia Casas epaile progresista da epaimahaiburua, eta beste bost epaileen artean PSOEk proposatutako beste bi eta PPKk proposatutako hiru daude.

## VILLABONA ▶ POLITIKA



## Amasa-Villabonako Abertzale Sozialistak aurkezpena egin du

**Erredakzioa** ▶ Amasa-Villabonako Abertzale Sozialistak (AS) beraien hautagaiak aurkeztu ditu. Lander Etxeberria dago zerrendaburu eta ondorengoak hauek dira: Esti Amenabarro, Martxel Pita, Aitziber Cenzano, Julen Yarza, Nahikari Iturbe, Eneko Iturbe, Maite Ortiz, Iker Vergara, Josune Añorga, Asier Parron, Maite Ugarte, Estanis Iriarte, Mila Urretabizkaia, Julen Zelarain eta Xabier Imaz. Epaileek zerrenda baliogabetu dutela eta datozen hauteskundeak «antidemokratikoak» direla salatu du Amasa-Villabonako ASk, baina, gaineratu duenez, «ezker abertzaleak hauteskundeetan egoteko determinazio osoa du». HITZA

## AIZTONDO ▶

### Bordeleko Azokara joateko aukera zabalik

Bordeleko Azokara Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak antolatutako bidaiara joateko oraindik lekua dago. Izena emateko 943 69 39 30 zenbakira deitu daiteke.

## ANOETA ▶

### Koadrilen Eguna antolatzeko bilera bihar udaletxean

Anoetako festetan Koadrilen Eguna antolatzeko bilera batera deitu die festa batzordeak herriko koadrilei. Bileraren bihar izango da 19:30ean, udaletxean.

**ABURUZA** Eraikuntzak, S.A.

Kale Berria, 46 behea • Tel.: 943 69 02 97 • Fax: 943 69 00 52 • 20150 VILLABONA

## ALEGIA ▶ KULTURA



Bertso Paper Lehiaketak arruntak dira gurean: irudian Gipuzkoakoan Haritz Mujika asteasuara. A. AGIRRE

# Eskolakoek ostiralean egingo dute II. Bertso Paper Lehiaketa

Hiru gai izango dituzte aukeratzeko, eta hiru maila bereiztu dituzte; helduek, hilaren 18ra arte dute zabalik epea

## ERREDAKZIOA

Alegiko II. Bertso Paper Lehiaketa bi maila bereiztu dituzte: helduena eta haur eta gazte-txoena. Helduen mailakoa zehaztuta, haur eta gazte-txoena ere zehaztu dute. Ostiralean izango da, eskolako liburategian bertan.

Zazpi Astoren Gainean bertso eskolak antolatutako lehiaketa Alegiko Udalar, San Juan herri eskola eta Aralar institutuak lagundu dute. Parte-hartzaileak adinaren arabera bi taldetan banatu dira: bate-tik, 8 eta 12 urte bitartekoak eta bestetik 12 urtetik 16 urte bitartekoak.

Gaztetxo hauek hiru gai izango dituzte eta bat aukeratu beharko dute: bertsoak idazteko doina eta neurria idazteak be-

rak aukeratu beharko ditu eta nahi adina bertso egin ditzake.

Orduetgia honakoa izango da: 13:15etik 14:15era, 12 eta 16 urte bitartekoak ariko dira bertsoak sortzen. Bukatu bezain laster 15:15a arte 8 eta 10 urte bitartekoak, eta 15:15etik 16:00etara, berriz, 10 eta 12 urte bitartekoak.

Sariak ere zehaztu dituzte: maila bakoitzean lehen biak izango dira sarituak, epaimahaiak beste sari bereziren bat erabaki ezean, eta garrantzitsuena dena: opariak izango dira sariak. Hala ere, sari banaketa noiz egingo den ez dute zehaztu eta bi aukera proposatu dituzte: «Ekainaren 1ean Kultur Etxean egingo den ekitaldi berezian, edo bestela ekainaren 9an, eskolako urte bukaerako festan.

## Hilaren 18rako helduena

Helduen epea ireki zen, baina oraindik ere bada aurkezteko aukerarik, hilaren 18ra arte bertsoak sortzen. Bukatu bezain laster 15:15a arte 8 eta 10 urte bitartekoak, eta 15:15etik 16:00etara, berriz, 10 eta 12 urte bitartekoak.

Lana Inaxio Begiristain kultur etxean entregatu edo helbide elektronikoko honetara bidal daiteke: [zazpiastorengainean@euskalerrria.org](mailto:zazpiastorengainean@euskalerrria.org). Sariak ere izango dira, eta bertso afari bat egiteko asmoa dute, bertsolari famatuekin.

## PILOTA ▶

## Bihar seniorrak ariko dira

Hitza Txapelketan gaur kadeteak dira

## N. URBIZU

HITZA Pilota Txapelketan dagoeneko hasi dira maila altuko pilotariak jokatzeko. 22 urte azpikoak larunbatean aritu ziren eta hauek izan dira emaitzak: Aspe-Diez 22, Iribar anaiak 13; Aizpitarte-Uzkudun 22- Elejalde Eizagirre 11.

Gaur izango direnak hauek dira: kadeteak Bidanian 19:00etan Karrera-Jauregi, Galarraga-Matxain, Mujika-Jauregi, eta Bereziartu-Iras-torza.

Bihar 22 urte azpikoak artekoak daude 20:30ean Beotibarren. Pikabea-Galarraga Atxotegi-Linzoain bikoteak lehenik, eta senior 2. mailako

Baez II-Galarraga, Olo-Jauregiren aurka. Ostiralean, Berastegin, Zabaleta-Jauregi Eskudero-Sagaseta jubentilak izango dira. Ondoren, Arakistain-Urruzola eta Galarraga-Barberia, eta Beloki-Errazkin eta Oiarzabal-Agiriano.

Bidanian kadeteen emaitzak honakoak izan ziren: Zinkunegi 14, Arafia 18; Otegi 18, Mayo 8; Galarraga 9, Murgiondo 18; Bereau 0, Jauregi 18.

Jubenilen artekoan Zazpi-Iiturriko bikoteak erraz irabazi zuen (22-2), eta Ilunpekoek juxtagatik galduta zuten (22-21). Larunbatean, Bidanian herrien arteko pilota partidak daude 20:30ean Andoainen kontra.

## ALEGIA ▶

## Garagardo Azoka hilaren 11n eta 12an

Alegian IV. Garagardo Azoka egingo dute, hilaren 11n eta 12an. Aurten San Miguel garagardo etxearekin egin dute hitzarmena Alegian. Intxurre KKEk antolatu duen azoka 19:00etan irekiko ditu ateak, Elorri pilotalekuan. Beraz, egun aproposak izan daitezke Alegiara hurbiltzeko, eskualdean ez baitago inongo festarik.



Elorri frontoian da azoka. HITZA

## ABALTZISKETA ▶

## Ausa-Gaztelurako eta bazkarian izena emateko

Hilaren 20an Ausa-Gaztelu mendira joateko ibilaldia antolatu dute Tolosaldeko nafarrek. Bazkaria izango da gero Abaltzisketan baina izena hilaren 17a baino lehen eman behar da 607 111 202 telefono zenbakian.

## ALEGIA ▶

## Arrazakeria tratatzen duen 'Crash' filma

Crash, arrazakeriari buruzko filma handia izango da Alegiko Gaztetxean bihar, 21:30ean. Paul Hagis da zuzendaria eta Sandra Bullock aktoreetako bat. Gizartearen aniztasunak arazoak ematen dituela ikusiko da filman.

### maiatzak 11 ostirala kantuan

20.00h. Alde zaharrean zehar KALEJIRA TXISTULARIEKIN. Tolosako alde zaharreko tabernako txikiteo herrikoia antolatu dugu. Kantu liburuak banatu dira nahi duen orok parte har dezan.

### maiatzak 12 larunbatadantzan

adin ezberdinetako dantzariak izango dira egun honetako protagonistak.

10.30h. DANTZARI TXIKIAK izango dira.

Trianguloan elkartu ondoren Tolosako kaleetan zehar dantzan izango ditugu.

18.00h. Berdura plazan Leitzako AURRERA dantza taldea.

22.30h. ALURR - UDABERRI, Leidor zinemaren.

Egun honi amaiera emateko Tolosaldean ezagunak diren Alurr eta Udaberrri dantza taldeetako dantzariak izango ditugu Leidor aretoan.

### maiatzak 13 igande amartxan

Asteburu honi amaiera emateko HERRI BAZKARIA izango da zerkausian.

Norberak bere jakiak eman behar baditu ere, Elkarteak 300 litro sagardo prest izango ditu bazkaltzera animatzen diren guztion artean dastatzeko.

Bazkari honen inguruan ondorengo ekitaldiak prestatu ditugu:

12.30h. KALEJIRA (txaranga, trikitaliak...)

14.30h. Zerkausian, BAZKARI HERRIKOIA txaranga eta musika talde ezberdinez alaiturik.

KUPELA dantza taldea eta BERTSOLARIAK.

Euskal giroa sortzeko helburuarekin, antolatzaileak partehartzaile guztiei euskal jantziekin bagertzeko deia luzatzen du.



kantuan  
dantzan  
martxan

BERROBI ▶ KULTUR ASTEA

# XVII. Kultur Asteari buruhandiek eman diote hasiera

Igandera arte iraungo duen kultur astean, eskulan erakusketa, ipuin kontalaria eta hitzaldia izango dira gaur



Agata elkarrean tango emanaldia eskaini zuen Etxolan. ASIER IMAZ

## ASIER IMAZ

Atzo hasi zen Berrobiko XVII. Kultur Astea. Igandera arte ekitaldi ugari antolatatu dituzte adin guztiko jendearentzat. Lehen egunean txikienek izan zuten protagonismoa, buruhandi eta euskaldantza emanaldiek. 18:00etatik aurrera berriz, Agata tango elkarrean eskuetik, tango mota desberdinen

emanaldia izan zen ikusgai, Etxola solastokian. Jende ugari elkartu zen bi ikuskizunetara; lehenik herriko haurrak irten ziren oholtzara, ondoren hiru bikote argentinar.

Gaurtik igandera beraz, zer ikusia eta ikasia ez da faltako Berrobin. Larunbaterako berriz, mendi martxak antolatatu dituzte, haur nahiz helduentzat.

## EGITARAUA ▶

Egunero ekitaldi ugari gozatzeko aukera izango da:

## GAUR

**18:00etan.** Idoia Santxez ipuin kontalaria.  
**19:30etan.** *Mekong ibaia*, *bizitza Tsunamiaren ondoren* diapositiba emanaldia, Angel Cuerdorekin.

## BIHAR

**18:00etan.** Sukaldaritza ikastaroa Bide Ona elkartearen.

## ETZI

**17:00etan.** Urreburuko gaztekoen pelota partidua.

## MAIATZAK 11, OSTIRALA

**10:00etatik 12:00etara.** Eskulan erakusketa Udaletxean.  
**17:30etan.** Eskolako ikasleen emanaldia ikastetxean.

## MAIATZAK 12, LARUNBATA

**08:00etan.** Helduentzako mendi martxa.  
**10:00etan.** Haurrentzat mendi irteera.  
**12:30etan.** Hamaiaketakoa mendizaleentzat.  
**16:00etan.** Mus Txapelketa gaztetxean.  
**18:30etan.** Toka txapelketa Solastoki aurrean.

## MAIATZAK 13, IGANDEA

**12:00etan.** Txakoli dastaketa udaletxe aurrean.  
**18:00etan.** Pailazoak doanik. Poxpolo, Mokolo eta konpainiaren taldea.

## IBARRA ▶

## 4-12 urteko haurrentzat udalekuak

Uzturpe Ikastolatik jakinarazi dute, uztailaren 2tik 27ra antolatatu dituzten *Oporretan Euskaraz 2007* udaleku irekietan izena emateko aukera zabalik dagoela. Kontu korronte baten zenbakia eman dute ikastolatik, bertan ostirala baino lehen sartu behar da dirua, ondoren ordain agiria ikastolara eraman behar da.

## GAZTELU ▶

## Osasunaren inguruko jardunaldia

Gazteluko Herriko elkartearen *Gorputz-higienearen eta gorputza zaintzearen garrantzia* gaia landuko dute bihar 17:30ean egingo den jardunaldian. Uli Mankomunitateak antolatuta eta Kutxako ikasgelak sustatuko du osasunari buruzko mintegi hau. Jardunaldi hauen helburua, eguneroko bizimodurako ohitura egokiak lantzea da.

## IBARRA ▶



Txikiak, urtero bezala danborradan Ibarra jaietan. HITZA

## Danborradaren etorkizuna zalantzan

*Ibarra San Bartolome jaietan Danborrada nahi?* galderari erantzuna emateko bilera deitu du herriko Jai Batzordeak. Festetan egun seinatuta bilakatu den ekitaldi honen inguruan eztabaida piztu da azken urtean. Horri irtenbidea emateko bi bilera deitu dituzte, bata haurren danborradari dagokiona eta bestea helduenaren ingurukoa. Gaur egingo dituzte bilera, 19:00etan txikiak eta 20:00etan helduenak, Benito Izagirre kultur etxean.

## AMEZKETA ▶

## Altunatarrak protagonista erremontean

Altuna II.a jaun eta jabe izan zen igandean jokatu zen erremonte partidua. 40-30 irabazi zuten amezketarrak eta Agirrezabalak. Gaur 16:00etan hasiko den jaialdian, Altuna I.ak jokatu du Ionekin bikote eginaz.

## IBARRA ▶

## Ibarra galdu egin zuen etxetik kanpo 3-2

Txapeldunaren aurka 3 eta 2 galdu zuen Ibarra Logroñon. 3-0 galtzen hasi ziren ibartarrak. Dena galduta zegoela zirudienean, Camiok lehenbizi eta Pradosek faltaz ondoren, partida berdinketaren ateetan utzi zuten.

## HILBERRIAK - URTEURRENAK - ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN 120.000 IRAKURLE

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen dira  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info  
Tel.: 943 65 56 95



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

LEITZA ▶ NATUR BIDEEN EGUNA

# Eguraldi txarra egin arren, 500 pertsona bildu dira Lekunberrin

Eguraldiak ez zuen gehiegi lagundu eta Adagio Laukoteak eskaini behar zuen kontzertua kantinan egin zuten



Leitzatik batzuk zaldiz egin zuten bidea. I. AZPIJKUETA

NAIARA GARZIA

Herenegun goizean zehar eta eguraldiak gehiegi lagundu ez zuen arren, 500 pertsonatik gora hurbildu ziren Lekunberrin Plazaola Geltoki ingurura. Plazaola Partzuergo Turistikoak antolatutako jai honetan umeak izan ziren protagonista nagusiak, eta zenbait pailazoen laguntzarekin ibilbide bat egin zuten.

Goizeko 09:00etan Partzuergoak proposaturiko ibilbideak hasi ziren. Ordu horretarako bi ibilaldi antolatuta zeuden arren, eguraldiak ez zuen gehiegi lagundu. Yolanda De Carlosek, Partzuergoko kudeatzaileak, azaldu duenez, «goiz partean jende gutxi animatu zen, eguraldi txarra egin baitzuen». Horregatik, 11:00etarako antolatuta zegoen ibilaldia izan zen arrakastatsuenak. «Jendea berandu etorri zen eta 11:00 aldera eguraldi hobe egiten zenez, umeen ibilaldia izan zen arrakastatsuenak. Azkenean, jendea beranduago etorri zenez, askok beren kasa egin zuten ibilaldia».

Lehenengo ibilbidea burutzeko, Leitzatik abiatzen zena, Uitziko tunela moldatu eta argiztatu zuten egun horretarako, baina de Carlosek adierazi duenez, «tunel honen zati batzuetan ur dezente zegoen, au-

rrerko egunetan egindako euriaren ondorioz». Ibilbide hau gehienek oinez egin zuten arren, bizikletan eta zaldi gainean ere ibili zirenak izan ziren.

11:00etako ibilbidean umeak parte hartzeaz gain, hauen familiak ere han izan ziren. Bizikletan zihoozen pailazoen txilobitu, globo eta xingolak banatu zizkieten txikiei. Bi kilometroren ondoren, geldialdi bat egin zuten eta bertan paraxut batekin joko ezberdinak egin zituzten. Geltokira itzuli ondoren, Saralegi Taloak prestatutako taloak banatu zitzaizkien, baita edaria ere.

## Artisau azoka

Goizean zehar, 10:00etatik 14:00etara geltoki inguruan egindako merkatuan Plazaola-ko artisau ezberdinen produktuak ikusi ahal izan ziren eta ondorengo artisauak parte hartu zuten: Saralegi Taloak, Trok tailerra (larrua), Bikain Gazta eta Mamiak, Artzeluz Zur Lanak eta Angel Beunza Tailuak

13:00a inguru aldera, ibiltari guztiak itzuli zirenean, Adagio Laukoteak musika klasikoaren kontzertua eskaini zuen. «Eguraldi txarra zela eta, aurreikusita zegoen bezala kontzertua ezin izan zen geltokiaren ondo-

an ospatu. Honen ordez, kantina berrian jo zuen Adagio Laukoteak», dio Yolanda De Carlosek.

Beraz, umez gain, eguraldi txarra izan zen protagonista igandean Lekunberrin.

## Kantina

Aurtengo berrikuntza kantina izan da eta Partzuergotik azaldu dutenez, ehundaka izan ziren bertara hurbildu zirenak. «Kantina Lekunberrin barruko bilgune berri bat da, eta Lekunberrin Plazaola Geltokiaren inguruan dauden eskaintzetan, bat gehiago», izan ere kantinak garai bateko trenak ekartzen ditu gogora. Bertan zerbait hartzeko aukera izateaz gain, bizikletak ere alokatu daitezke.

## TOLOSALDEKO HITZA.INFO

**Eztabaida.** Azken urte hauetan etxebizitza asko eraiki dira Leitzan, baina babes ofizialekorik ez. Horrelako pisuak behar direla somatzen al duzu? Herritarren beharrak beteko lirakeela uste al duzu? Sartu gure webgunean eta eman zuren iritzia.

LEITZA ▶ PILOTA

## Barriola berriro Eskuz Banakako finalerdietan

Astelena pilotalekuan jokatu du finalurrekoa Eugiren aurka, hilaren 20an



Irujo eta Barriola, Lau t'erdiko finalean. JAGOBA MANTEROLA/ARGAZKI PRESS

N. GARZIA

4 urte eta gero, Abel Barriolak Eskuz Banakako Txapelketa finalerdia jokatu du berriro maiatzaren 20ean. Eugiren aurka ariko da eta egun horretarako Eibarko Astelena pilotalekua berrirekiko dute. Finalerdietako beste bi pilotariak zein izango diren erabaki gabe dago oraindik, asteburu honetan jokatuko baitituzte final-laurdenak Bengoetxea VI.ak eta Gonzalezek alde batetik, eta Olaizola II.ak eta Patxi Ruizek, bestetik.

Igandean Ogetan jokaturiko norgehiagokan apustuak Martinez Irujoren alde atera ziren arren, azkenean leitzarra gailendu zen. Adituen ustetan Barriolaren joko paregabekoa izan zen eta zenbait hedabideek jada txapel duntzat jotzen dute, igandeko garaipenak txapel zaporea duela adieraziz.

Barriola nagusi izan zen pilotean eta 4-7 zihoztenezan izterondoan zaintiratu bat izan zuen arren, jokoari eder-

ki eutsi zion. Eskuineko bolea izan zen Iberokoaren aurka leitzarrak erabili zuen arma nagusia eta asmatu egin zuen.

Aurreko kanporaketetan erasoan soilik ibili da Barriola, baina igandean defentsan ere ederki moldatzen dela argi utzi zuen. Partida amaieran Martinez Irujo tanto batengatik irabazten zioenez (20-19) iberotarrak tantoa galdu zuen, eta hori izan zen igandeko norgehiagokako txapeldua erabaki zuen tantoa.

## Zaintiratuta

Leitzarrak igandeko partidaren zientzatuaren ondorioz erresonantzia bat egingo diote, baina finalean izan ezik, araudiaren arabera ezin dira partidak atzeratu.

Partidak 76 minututako iraupena izan zuen, zaintiratuaren ondorioz Barriolak behar izan zituen 10 minutuak barne eta 2.000 pertsona inguru joan ziren Gasteizko Ogeta pilotalekura.

## iragarki laburrak ▶

### LANA

**Sukaldaria.** Villabonan sukaldaria behar da. 943 69 19 33.

**Zerbitzaria.** Tolosaldean taberna batean zerbitzari bat behar da lau orduz lan egiteko. 635 74 52 91 / 943 69 43 13.

### Mantenu langileak.

Udalebeetarako. 943 44 48 66

**Gidariak.** Erakunde publikoetarako. 699 13 45 86.

### SALGAI

**Egurra.** Sutarako pago egur lehorra salgai. Etxera entregatzen da.

Interesatuek deitu 615 75 57 62 zenbakira.

**Autoa.** Citroen Saxo VTS. 90 zaldi, 116.000 kilometro, extra askorekin eta ondo zaindua. Telefona: 651 70 90 23.

**Trikitixa.** Trikitixa berria saltzen da. 669 67 36 49.

**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Anoeta.** Ezker abertzaleak Anoetan hilaren 12an antolatu duen txekor jaterako txartelak salgai daude Itzuli, Arkupe, Haizea eta Goikoetxea tabernetan, Tolosako Rakun, Villabonako Iratzarren, Ibarra Atarin eta Alegiako Ixkinan, 22 eurotan (langabetuek 15).

**Ibarra.** Bizi Nahi erretiratuen elkartearen 25. urtemuga dela eta, Izaskunera erromeria egingo dute maiatzaren 18an: hamaiketakoa, toka lehiaketa, meza, bazkaria eta dantzaldia. Autobusa ere jarriko dute. Izen-ematea, elkarrean.

**Irura.** Udalak argazki lehiaketa antolatu du Kultur Asteko egitarauaren barruan. Gaur bitarte ateratako 2007ko argazkiak aurkeztu ahal izango dute lehiaketara 6 eta 16 urte artekoek.

**Tolosa.** Kd eta binilo azoka berezia izango da, 18:00etatik 21:00etara egunero Bonberenean (larunbata egun osoz).

**Tolosa.** Ikatza, Iruña, Orbela eta Raku tabernak. Laskorain Ikastolaren 40. urtemugan, ikasle ohiek afaria antolatu dute hilaren 19rako Ferialekuan 21:00etan. Txartelak salgai daude Ikatza, Iruña, Orbela eta Raku tabernetan.

**Villabona.** Udaleko Euskara Batzordeak aurten ere 'Amodiozko gutunen' lehiaketa antolatu du gazte eta helduentzat. Lanak Euskara Batzordean entregatu behar dira hilaren 14rako.

**Zizurkil.** IX. Biatloia Zizurkilan maiatzaren 20ean, 7 urtetik aurrera. Hamaiketakoa, sariak eta opariak. Izen-ematea, doan, Aurrera udal bulegoetan edo 943 692495 telefonoan.

**Zizurkil** Bertso eta musika afaria egingo dute Eñaut Agirre eta Amaia Agirre eta Jexux M<sup>®</sup> Irazu bertsolariekin 19an 21:00etan Zentroan. Txartelak salgai 15 eurotan Zentroan eta Aurrera tabernan.

**ERAKUSKETAK**

**Anoeta.** Christian Andersenek idatzitako



**Marian Etxeberria lasartearra da irabazlea**

**ANOETA ▶** Aurten Anoetako festa batzordeak kartel lehiaketa antolatu du festetako kartela eta egitarauaren liburuxkaren azala egiteko. Festa batzordeak berak aukeratu ditu lan saridunak eta irabazlea Lasarte-Oriako Marian Etxeberria da —berak egindako kartela ondokoetatik goian dagoena da—. Lasartearrak 300 euroko saria eskuratu du. Herriko parte-hartzaileentzat ere saria bat zegoen eta hori Iñigo Errazkinentzat izan da —berak egindako kartela ondokoetatik behean dagoena da—. Anoetarak 100 euroko saria eskuratu du bere kartelarengatik. Guztira 13 lagunek hartu dute parte eta hauek 16 lan aurkeztu dituzte orotara. Parte-hartzaile hauetatik 9 anoetarrak dira, 3 Irurakoak eta bat Lasarte-Oriakoa. Festa batzordeak irabazleak zoriondu nahi izan ditu, eta eskerrak eman nahi dizkie partaide guztiei lehiaketaren beren lanak aurkezteagatik. Era berean, kartel lehiaketaren antolatzaileek jakinarazi dute aurkeztu diren lan guztiak ikusi ahaliko direla, erakusketa bat egingo baita udaletxean herriko festek irauten duten bitartean. HITZA

ipuinetan oinarritutako erakusketa bat ere antolatu du Anoetako Udalak Abraham Olano kiroldegian. Egutegia: 10.00etatik 12.30era eta 15.00etatik 21.00etara. Bihar izango da bisitatu ahal izateko azken eguna.

**Tolosa.** Gipuzkoako Argazkilariei Elkartearen *Tolosa 750 argazkiak* lehiaketako irudiak Aranburu Jauregian ikusgai jarri dituzte ekainaren 2ra bitarte.

**Zizurkil.** *Hitza* egin gaitu ezer erakusketa izango da ikusgai, aste osoan zehar. Egutegia: 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara eta asteburuan 12:00etatik 13:30era.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
**Irurtzun.** Gastearena, M. Amaia kalea, 4. 112.  
**Tolosa.** Morant, R. Zabalaretza, 1. 943 673649.

**IRRATIA**

**Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)**  
**11:00-14:00.** *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITZaren errepaso, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...  
**18:00-20:00.** *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).  
**20:00-21:00.** *Goiko eskolatik betti*.  
**21:00-22:00.** *Izarrak eta ilargia*.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanena eta iritzien erantzukizunik.

**AGURRAK ▶**



**URTE ASKOAN**  
 Igor Aristondo Fajardo. Gaur urtebete. Zorionak eta muxu handi bat pobolo.



**URTE ASKOAN**  
 Joseba Egues (Berrobi). Zorionak aitabo. Ondo pasa!!



**ZORIONAK**  
 Albitzurren, Ogi-Onako bikoteak 47, ezkontza urtebetetzea ospatzen du. Tal para cual, Xalbador eta Maria Socorro.

**Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.**

- ▶ HITZAren egoitza TOLOSAN Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza LEITZAN Udaletxeko bulegoa

**hitza** agurren tarte  
 Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...